



AGOITZ kaleko 9.eko EKITALDI-ARETOA ERABILTZEKO ARAUDIA (ENTITATEENDAKO)

2026ko apirilean amaitu ziren Agoitz kaleko 9. zenbakiko udal-eraikineko ekitaldi-aretoa egokitze lanak. Eraikin horretan hainbat udal zerbitzu daude: EEAL, IPES eta Emakumeen Etxea.

Aretoa hori herritar guztiek erabiltzen ahalko dute.

EKIPAMENDUA ETA BALIABIDE MATERIALAK

Aretoak ikus-entzunezko sistema hauek izanen ditu:

Proiektzioetarako ekipamenduak:

- Proiektagailua (Epson Laser EB-PU1008B)
- Distantzia ertaineko lentea (EPSON ELPLM15)
- Proiektzio-pantaila
- Proiektagailuaren euskarria
- Instalazioa eta konfigurazioa

Ikus-entzunezkoen sistemarako azpiegitura

- Harguneetako lurreko kutxaren kita
- HDMI hautagailua
- 4 bideo-sarbidetako transmisorea
- HDMI hartzailea
- Kableatua
- 24U ko rack armairua
- Instalazioa

Audio-ekipamendua:

- Gainazaleko bozgorailua (Drive-15A Activo): bi unitate
- Baxuetarako bozgorailua (D3452 PSUB-418AK Activo): bi unitate
- 12 kanaletako nahasketa-mahaia
- Egokigailuak
- Hari gabeko eskuko mikrofonoa (TXS-606HT/2)
- Hari gabeko hartzailea (TXS-606): bi unitate
- Hari gabeko paparreko mikrofonoa (TXS-606LT/2)
- Berrelikaduraren ezabatzailea (MFE-212)
- Instalatzea eta programatzea

Jarraibideak emanen dira aipatutako ekipamendua erabiltzeko, eta entitatearen ardura da hura egoki erabiltzea.



Ikus-entzunezko baliabide asko behar dituzten jarduerak badira (antzezlanak, kontzertuak, zinema-saioak eta abar), gomendatzen da entitate eskatzaileak teknikariak kontratatzea.

ESKAERA EGITEKO ARAUDIA

Aretoa erabiltzeko, eskabide-orri bat bidaliko da helbide elektroniko honetara: igualdad@pamplona.es. Emakumeen Etxean edo Iruñeko Udaleko Berdintasunen Alorrean eskuratzen ahalko da orria..

Eskaera jarduera egin baino gutxienez 2 hilabete lehenago aurkeztu beharko da.

Eskaerak behin betiko onartu edo ukatuko dira jarduera egiteko 2 hilabete geratzen direnean.

ARETOA ETA HAREN ELEMENTUAK ERABILTZEKO ARAUDIA

Sartzeko giltzak jaso eta eskatzea

Ekitaldi-aretoko giltza sarrerako bulegoan (Emakumeen Etxeko zerbitzuan) jaso eta itzuliko da, honako ordutegi honetan:

- Astelehenetik asteazkenera: 17:00 – 21:00
- Ostegun eta ostiralean: 10:30 – 13:30 eta 17:00 – 21:00
- Larunbatetan: 10:00 – 13:30 eta 17:00 – 20:30.

Giltzak arestian zehaztutako jendaurreko ordutegiaren barruan hartu beharko dira, baita jarduera ordu horietatik kanpo egiten bada ere.

Jaiegunetan edo igandeetan egiten diren jardueretarako, giltzak Iruñeko Udaleko Berdintasunen Alorrean hartu beharko dira, Descalzos kaleko 72.ean. Horrelakoetan, mezu bat bidali beharko da igualdad@pamplona.es helbidera, giltzak hartu nahi direla jakinarazteko.

Ohar garrantzitsua: Giltzak hartzea aldez aurretik planifikatu beharreko zerbait da, dagokion jarduerara sartzeko eragozpenak saihesteko.

Erabilera eskatzen duen entitate, kolektibo edo elkartearen erantzukizuna izanen da elementu guztiak behar bezala erabiltzea, bai eta jarduera edo egintza bukatutakoan aretoa txukun uztea ere.

Proposatutako jarduerak baimendutako edukiera gainditzen ahal duela aurreikusten bada, entitate antolatzailea arduratuko da gonbidapenak egiteaz eta kudeatzeaz. Gonbidapenak ekitaldia baino lehen jaso beharko dira.



Ekitaldi-aretoa sartzeko araudia:

- Ekitaldi-aretoa erabiltzeak berekin badakar edozein soinu- edo argi-ekipamendu erabiltzea, entitate, kolektibo edo elkarte eskatzailea izanen da ekipamenduaren eta haren erabileraren arduraduna.
- Debekatuta dago giltzen edo sartzeko bestelako sistemen kopiak egitea, baita horiek taldekoak ez diren beste pertsonaiei ematea ere.
- Iruñeko Udalak une orotan jakinen du zer entitatek duten aretorako sarbidea.
- Debekatuta dago sarraila edo erabiltzen den sarbide-sistema aldatzea Iruñeko Udalaren baimenik gabe.
- Irekitzeko eta ixteko erantzukizuna entitate, kolektibo, erakunde edo pertsona eskatzaileari dagokio.
- Espresuki bazterturik dago lagapenik egitea honako jarduerak hauek barne hartzen dituzten jarduerak publikoak egiteko: ekitaldi erlijiosoak; izaera alderdikoa duten ekitaldi politikoak; giza eskubideak urratzen dituzten jarduerak; izaera bortitzeko edozein ekintza edo jarduerak babestu edo legitimatzen dituztenak; jokabide edo ekintza matxista, LGBTIfobiko edo arrazistak sustatzen dituztenak eta interes pribatuko edozein jarduerak. Era berean, baztertu egin behar da azpiegitura soziokultural horiek erabiltzea paragrafo honetan aipatzen diren jarduerekin lotutako adierazpenak jasotzen dituen material grafikoa edo beste edozein eratakoea erakusteko edo azaltzeko

Ekitaldi-aretoaren erreserba:

- Ekitaldi-aretoa unean uneko jardueretarako erreserbatu behar da, elkarte eta kolektibo gehiagok izan dezaten aretoak erabiltzeko aukera.
- Erreserba aretoak hainbat egunetarako erreserbatu beharra dakarten prestakuntza-programa, jardunaldi edo bestelako jardueretarako egiten bada, inguruabar hori eskaeran adieraziko da, eta berdintasuneko teknikari-taldeak balorazioa egingen du.
- Ekitaldi-aretoa erabiltzeak berekin dakar herritarren konpromisoa material publikoak zaintzeko, eta hortaz, aretoa aurkitu bezala utzi behar da, eta atea itxi eta giltzak itzuli. Kalterik izanez gero baliabide publikoa erabili duten pertsonak izango dira erantzule.
- Erabat debekatuta dago ekitaldi-aretoa edariak eta janaria sartzea.